

Altzaga, Elduain, Zaldibia, Itsasondo eta Ikaztegieta ere UEMAn sartu dira

«Euskara administrazio eta harremanetarako hizkuntza bihurtu nahi dugu»

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeko sinatze ekitaldia egin zuten atzo Altzaga, Elduain, Zaldibia, Itsasondo eta Ikaztegieta ordezkariek. «Udalerri euskaldun guztiak batuz lau haizeetara zabaldu nahi dugulako» sartu dira mankomunitatean bost herri horiek.



UEMA sartzeara erabaki duten herrietako ordezkariek mankomunitateko kideekin atzo eskaini zuten prentsaurrekoan.

EDURNE KOCH

Mikel Arrieta / Donostia

GOIERRI eta Tolosaldeko bost herri txiki horiek dira Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeara erabaki duten azkenak. Atzo Donostian mankomunitatearekin sinatu zuten akordioan esaten denez, «UEMAko partaide diren udalen helburu zehatza udalean eta udalerrian sozialki euskaraz bizitzea izanik, euskara administrazio eta harremanetarako hizkuntza bihurtu» nahi dute bost herri horiek.

Beste bi puntu ere jasotzen ditu herri horiek UEMArekin lotzen dituen hitzarmenak. Lehenaren arabera, «gure udalerritan euskaraz funtzionatzek ez du inoren hizkuntza eskubidea ukatzen, euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun premia babestu baizik, herritarren integrazioa bilatuz». Euskara duten altxor preziatuena dela nabarmentzen dute herri horiek hitzarmenaren hirugarren puntuan, «eta ezberdintasun politikoan gainetik, udalerri euskaldun guztiak batuz lau haizeetara zabaldu gura dugu».

Hiru mila biztanle inguru • Herri txikiak dira bostak. Handienak, Zaldibia, 1.600 biztanle ditu. Guztiek dute ezaugarri amankomun bat: biztanleen % 80 baino gehiago euskaldunak dira. «Herri txiki hauetan gure arbasoen arnasa, ekologia, Euskal Herriko ohitura zaharrak eta gure hizkuntza milenerioa godetzen di-

ra», UEMAko zuzendaritza batzordeko kide eta Gipuzkoako arduraduna den Leire Aranaren hitzetan. Herri hauek «euskara bizi eta jatorraren» jabe dira, Aranaren ustez.

Euskara administrazio eta harremanetarako hizkuntza bihurtzeko «bidaia hau bakarrik baino hobe da elkarrekin egitea. Ondorioz, foru aldundiak, Eusko Jaurlaritza, eta gainontzeko erakundeak animatu nahi ditugu euskaraz funtzionatzera eta gurekiko harremanak euskaraz izatera». Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen eguna maiatzaren 5ean Aramaion egingo dela gogorarazi zuen Leire Aranek atzo Donostian eman zuten prentsaurrekoan.

Amaia Etxabe Zaldibiako ordezkariek herria UEMAn sartu

izanak duen garrantzia nabarmendu du: «Oso garrantzitsua da guneak sortzea euskara hutsean funtzionatzeko». Euskaldunak historikoki «diskriminatuta» gaudela uste du Etxabek, «eta mankomunitatea bultzatu egin behar dugu».

Iñaki Zubeldia Ikaztegieta alkatearen ustez, «UEMA sartzeko erabakia oso garrantzitsua da euskaraz funtzionatzen has-teko». Ildo horretan, dei egin nahi die euskaraz funtzionatzeko aukera duten gainontzeko herriei, UEMAn sar daitezen.

Itsasondoko eta Elduaingo ordezkariek UEMAn batzeak duen garrantzia nabarmendu dute: «Udaletan euskara lan hizkuntza bilakatzeko errazagoa da mankomunitatean barruan egitea. Arazo teknikoei aurre egiteko el-

kartzeak indar gehiago ematen digu».

Ahalik eta udaletxe gehien bildu

• UEMAREN inguruan ahalik eta udaletxe gehien biltzea da mankomunitatearen helburua. Iñaki Arregi koordinatzailearen hitzetan, «herritarrei udaletxetik euskaraz zerbitzu on bat ematea da helburua».

Bertan biltzen diren udaletxeen kopurua handitzeak duen garrantzia azpimarratu du Arregik: «Gureak baino handiagoak diren administrazioekin harreman zuzena dugu. Hortik informazio ugari gaztelera hutsean etortzen zaigu. Udaletxe asko biltzen bagara mankomunitate honetan presio handiagoa egin ahal izango dugu idatzi horiek euskaraz jaso ahal izateko». X

Oztopoak

EUSKARAZ funtzionatzeko dituzten arazoak berri eman zuten Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) atzo. Iñaki Arregi koordinatzaileak atzo bertan jakinarazi zioten kasu baten berri eman zuten prentsaurrekoan: «Hauteskundeak igandean egiten direnean, herri txikietan idazkariek, aguzazilek eta garbitzaileek lana egin behar izaten dute. Ondoren, eta lanaren ordaina jaso ahal izateko, Madrilera txosten bat bidali behar da. Berau euskaraz bidaliz gero, langileek ez dute lan ordaina jasotzen. Nola bidaltzen

dute? Gaztelera noski!». Gisa horretako kasuak ugariak dira UEMAko kideek azaldu dutenez. Udalerri euskaldunak idatziak gaztelera hutsean nondik jasotzen dituzten «zehatz-mehatz» jakiteko ikerketa bat egiten ari da UEMA. Informazio horrekin «gero plangintza bat egiteko asmoa dugu arazoari irtenbide egokia emateko». Horretarako, ordea, instituzio guztien laguntza ezinbestekoa da, Arregiren ustez: «Guk bakarrik ez dugu nahikoa indar beste administrazioei presio egiteko». X

Eusko Trenbideak konpainiak 18 toxikomano ohi kontratatuko ditu Jaurlaritzarekin elkarlanean

■ Kolektibo horretako kideak gizarteratzea du helburu ekimenak


Erredakzioa / Donostia

EUSKO TRENBIDEAK hemezortzi toxikomano ohi kontratatuko ditu haiek errehabilitatu eta gizarteratzeko. Ekimen hau ETK Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lana eta Gizarte Segurantzaren Sailarekin sinatutako akordioaren ondorioa da. Helburua epe luzean langabekuek lanerako prestatzea da, eta mundu profesionalean integratzeko bereziki kolektibo zaila da toxikomano ohiak osatzen dutena. Ekimen horren bitartez esperientzia hartuko dute pertsona horiek, eta etorkizunean lanean jarraitzeko erraztasun gehiago izango dute.

Jada droga mundua utzia duten lagun horiek etzi egingo diote lanari. Oso lan desberdinak egingo dituzte, esaterako, geltoki inguruak eta trenbide-ondoak garbitzea, edo mantenimendu lanak. Guztiek Bilbo-Donostia, Donostia-Hendaia (Topoa), Zornotza-Bermeo eta Txorierriko lineetan egingo dute beharra. Eusko Trenbideak trenbide eta obretako langile espezializatu gisa kontratatu dituzten pertsona horiek, eta guztiei sei hilabeteko kontratua egingo diete. Eusko Trenbideak hiru talde osatu ditu kontratatutako lagun horiekin. Seiko taldeak izango dira; horietatik bik Bizkaian egingo dute lan, eta besteek Gipuzkoan.

Asteleheneetik aurrera lanean hasiko diren hemezortzi pertsona horiek toxikomanoak gizarteratzea helburu duten erakundeetako kideak dira. Larrabetzuko Manuene komunitatekoak dira batzuk, Gizakia Helburu proiektuan aritu direnak beste batzuk.

Badira AGIPAD (Drogen Abusuaren Prebentzioaren Ikerketarako Gipuzkoako Elkarte) taldean aritutakoak ere. Laguntza egitasmo honek Europako Gizarte Fondoko dirulaguntza du. X



ZARAUZKO UDALA

IRAGARKIA

Otsailaren 6ko Gipuzkoako A.O. ean (26 zk.) argitara eman zen Udal honek 1996ko urtarrilaren 25ean hartu zuen akordioaren iragarkia: Udal mugape honetako Asti kirolgunearen inguruan dagoen herri-jabariko sektorea erabiltzeko baimena emango duen kontzesioa adjudikatzeko lehiaketa irekirako deialdia egiten zuena.

- Enkante mota: 250.000 pezeta.
- Kontzesioaren epealdia: 5 urte.
- Behin-behineko fidantza: 50.000 pta.
- Behin-betiko fidantza: adjudikazioaren zenbatekoaren %4.
- Eskaintzak aurkezteko epea: 1996ko martxoaren 4a, Udaletxeko Idazkaritza Nagusian.
- Klausula Pleguak: interesatuen eskura daude Udaletxeko Idazkaritza Nagusian.

Zarautzen, 1996ko otsailaren 28an. ALKATEAK